

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko apirilaren 29a / IV. urtea / 125. zenbakia



Artaizko elizaren irudi bat.

FERMIN ZUZA

«Goi mailako eliz jendea bera, eta hauxe da makurre-

na, lohitu egiten da, aberastasuna pilatzen du eta, beraz, Kristok bere elizakoei maitatzera agindu zien benetako pobretasuna bortxatu egiten da». 'Codex Calixtinus' liburuaren pasarte honetan XII. mendearen hasieran sortu zen gizartearen inguruan Elizak hartu zuen jarrera azaltzen da. Gutxi zekiten irakurtzen, ordea, eta ikasbiderik onena elizetako atariak ziren horretarako. Hortik sortu zen ikonografia izugarri aberatsaren lekukoak dira Nafarroako hainbat atari eta klaustro. Deabruak, izua adierazten duten irudiak, bide okerren errepresentazioak... dena eliztarrak bide makurretik libratzeko.

Elizetako atarietako ikasgaiak

Amen eta omen

AINGERU EPALTZA



Testamentue

Hil da, hil da, gure katue, ein dau, ein dau testamentue...'. Bizkaiko berba mardoaren entzuterik sekula izan ez duen Iruñerriko neska-mutiko bati baino gehiagori aditu diot aspaldi honetan eskola edo ikastolatik ateratzean. Seguraski, hamarretan berderatzik erdizka baizik ez du ulertzen kantatzen ari dena, baina horrek ez du sobera inporta. Hainbertze eta hainbertze baitira irakasleari entzun bai baina entenitzen ez dizkiotenak!

Gure euskalki mendebaldarre-nari inguru zenbaitetan zaion mesfidantzaz ez da libratu Oskorrik, Bilboko Labayru Ikastegiak bilduriko materialaz baliaturik, plazaratu duen azken lana. Horren lekuko, EGUNKARIA honetan berean Natxo de Feliperi egin zitzaion elkarrizketa. Hartan, kazetariak bere zalantzak agertu zizkion kanta guztiak Bizkaiko ahozko tradizio-koak izanik, herrialde horretatik kanpora hartuko zuen harreraz. Bilboko euskaldunberri bizardunak oroitarazi behar izan zuen orduan, begibistakoa izanik ere batzuei maiz ahanzten zaiena: «diska honen hitzak euskaraz daude».

Bizkaitik kanpoko ehundaka irakasle, guraso eta haurrek ederki ulertu dute hori, 'Katuaren testamentua' hitzetik hortzera darabil-telarik azken horiek beren jostetan eta jolasetan. Seguraski, 'Katuaren testamentua-k' hagitzez ere gehi-go egin du bizkaieraren promozio eta ezagutzarako, hamaika dokto-retza-tesi aspergarrik baino. Maitasunez eta kalitatez hornituriko lanak biltzen duen uzta.

Nik, halako zimiko bat somatzen dut nere baitan, Atarrabia edo Antsoaingo umemokoak, Dima, Markina edo Mendexako aitita-amumek diska honen bidez utzi diguten ahozko testamentuaren jabe ikusten dudanean. Halako poz mingots bat da, haurretan gustora ikasiko nituzkeen kantak ibiltzen baitituzte orain beren ezpainetan. Eta horrekin batean, inbidia miko bat ere bai, tamalez, Oskorri bezalakorik ez baitugu guk, hemen, gere artean.

GUERE AUKERAK

BERTSO SAIOAK



Bittor Elizagoien. Manolo Arozena eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak hartuko dute parte Zaldiko Maldiko Elkarateak apirilaren 30erako prestatu duen bertso bazkarian. Eguerdiko 14.00etan hasiko da eta bertara joan nahi dutenak Elkaratean bertan edo Xalbador liburudendan erosi behar dituzte txartelak, hilaen 28a baino lehen. Txartelak 2.200 pezetan salduko dituzte.

Estitxu Arozena. Jexux Mari Irazu, Unai Agirre eta Maddalen Lujanbio bertsolarien saioa izanen da gaur, apirilak 29, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Eguerdiko 12.00etan hasiko da.

ANTZERKIA



'Vaya Playa' izeneko antzez-lana eskainiko du gaur, apirilak 29, Solubles Teresa taldeak, Tallako Guesera Dantzalekuan. Kultur Patronatoak antolatuta, gaueko 22.30etan hasiko da. Sarrerak 200 pezetan salduko dituzte.

'Vagabundos' izeneko obra eskainiko du bihar, apirilak 30, Teatrapo antzerki taldeak Zudairreko kolonia-eskoletan. Udaberriko Bira programaren barruan, arratsaldeko 18.00etan hasiko da.

MINTZALDIAK



'El Salvador, hauteskunde ondorengo egoera' gaiari buruzko mintzaldia eskainiko du gaur, apirilak 29, Askapenako kide batek. Arratsaldeko 20.30etan hasita, Altsasuko Gaztetxean izanen da.

BESTELAKOAK



'Herrera Mendatea-Biasteri' mendi ibilaldia antolatu du igande honetarako, maiatzak 1, Nafarroa Kirol Elkarateak. Ohizkoa denez, egun osoko martxa izanen da 'Herrera Mendatea-Biasteri' ibilaldia, baina informazio gehiago eskatu eta izena emateko Elkarateak Jarauta kalean duen egoitzara joan edo 22 43 24 telefonora deitu behar da.

Baztandarren Biltzarra 94 uztailaren 17an izanen da, Elizondon, eta antolatzaileek aurtengo kartel lehiaketaren arauak bidali dituzte. Beste batzuen artean, honako hauek: guztietan 'Euskarak batzen gaitu' lema aipatu behar da, kartelak 50 bider 70 zentimetrokoak behar dute izan gehienez.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Zer egin dugu gaizki?

● Konfirmatu da. Aste batzuetan arnas estuka ibili ondoren, albajaitan, ez dugu lortu. Besterik esaten dutenak edo izorratu nahian dabilta, edo San Ferminengan soberazko konfidantza dute: balizko eta guzti erreala den konfi-

batzuk —agur eta ohore, Pepin—, eta bakar batzuek mundu zabaleko zelai ezezagunak, zoiltiez betetakoak, bisitatu beharko dituzte. Zadarre ondoko futbol zelaiak gutxitan izango du ja ezaguna zen presio hori, eta Real Madriderik edo Barçak

tik Zabalzak beti lelo berbera errepikatzen zuen: «Nahi badugu txarrenak bezain txarrak izan gaitezke». Ez da mundua eroriko, baina zerbait faltan somatuko dugu, dudarik ez egin. Urte guzti hauetan jende askoren erreferentzia izan da lehen tal-



dantza.

Bigarren mailan gaude —futboleak beti lehen pertsonan mintzatu behar den ustean nago, bestela ez baita futbola—. Eta zama hori bizkar gainean eramaten jakin beharko dugu aurrerantzean. Joango zaizkigu jokalaria —Urban, zer egin dizugu?—, jubilatuko dira

oroipen txarreko estadioa ahaztuko dute denboraldi batez bederen. Askok irrifarrea egingo dute. Gorritxoak bigarren mailan berriro.

Orduan hasiko gara ohar-tzen urte guzti hauetan bizi dugun ametsaz. Konturatu-ko gara Ezkurra zerbaitengatik zela zuhurra, eta zerga-

dea, besteak baino makalagoak ez garela erakusteko edo, baina bigarren maila, bigarren maila da. Behean dagoena, alegia. Horretaz ohar-tzen hasiak dira agintariak ere, eta nonbait, inork ez du gustu handia Ezkurraren postua. Merezki al dugu hainbeste kalamidade? Zer egin dugu gaizki?

ASTEKO PERTSONAIK



Josep Borrell
Herrilan ministroa

Joan den astelehenean izan zen Iruñean Josep Borrell, Herrilanetako ministroa, Navarra Foro XXI elkartearen arduradunak deituta. Antonio Aragonekin bildu ondoren, honek aurreko astean 'Roldan kasuarekiko' loturagatik aurkeztutako dimisioa onartzea erabaki zuen Borrellek. Hori bai, argi azaldu zuen Aragonen kargu uzteak ez duela eraginik izango Itoizko urtegiaren, urtegi hau «ez baita pertsona bakar baten proiektua», bere hitzetan. Aragon, ordea, ez zen mintzaldira agertu. Ostean, Itoiz izan zen gai nagusia. Etengabeko erreferentzia Europako Batzordea izan zen, honek hartzen duen erabakiak eragin handia izanen baitu proiektuan. «Uste dut koordinakundeak jarritako kexuak ez duela aurrera egingo», azaldu zuen Borrellek.



Pako Aristi
Idazlea

Urrestillako idazle ospetsua Iruñean izan zen joan den larunbatean, bere azken ipuin liburua aurkezteko, Liburuaren Egunaren barruan. 30 ipuinez osatutako 'Auto-stopeko ipuinak' izena daraman lan honetan hainbat urtetan idatzitako narrazio motzak bildu ditu Aristik, denak kontakizun atsegin eta arinak. Horietako bat, hain zuzen, Iruñean kokatu du idazleak, eta hori oso-osorik argitaratu genuen aurreko Nafarkarian. Liburuaren aurkezpenaren ondotik liburuak sinatzen aritu zen, eta jende franko agertu zen Auzolan liburudendara, liburutegian idazlearen sinadura izateko asmoz, bederen. 'El Diario Vasco' egunkariaren 'Zabalik' euskarazko gehigarrian ari da lanean egun Aristi, eta hainbat sari jaso ditu kazetaritzan egin duen lanarengatik.

AHAZTU GABE!

Jaialdiak



Trikitixa saio berezia izango da igande honetan, maiatzak 1, Etxarri-Aranatzen, Euskal Herriko Trikitixaren Txokoa Elkarateak antolatuta. Arratsaldeko 7etatik aurrera, herriko plazan, zortzi bikote ariko dira, horietariko bat ingurukoa, Arbizuko hain zuzen ere. Hauek dira bikoteak: Miren Mendinueta eta Irune Agirre (Arbizu); Jon eta Itsaso Ostolaza (Deba); Gorka eta Aitor Alustiza (Andoain); Ixiar Oria eta Nagore Ugalde (Oiartzun); Garazi Legorburu eta Larratza Lasa (Errenteria-Oiartzun); Goiatz Mendizabal eta Sara Irastorza (Ordizi-Lazkao); Lorea Ugalde eta Amaia Etxeberria (Andoain) eta Edurne Iturbe eta Aitziber Estanga (Urretxu-Donostia). Hau ez da izango, baina, gure lurraldean hain gutxitan ikusten ahal direneta-ko azken ekitaldia, Sakanako herrian bertan Euskal Herriko Trikitixa Txapelketako kanporaketaren bat ekartzeko asmatan baitabilta.

jenero xumekoak

Jorge Oteiza banintz

Farewell again please come back someday. It's getting harder every time I have to say goodbye. Oh fare you well. Adio berriz ere, mesedez etor noizbait. Gero eta zailago zait adio esaten. Egon bizkor. You always go. Where do you do? Beti alde egiten duzu. Nora zoaz?

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gaitetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Sakanako aldizkaria aurkeztu zen

AMAIA AMILIBIA / **ALTSASU**

Sakanan luze gabe aterako den herri aldizkariaren aurkezpena egin zen joan den ostegunean Altsasun, bertako Kima taldeak eta Euskara Zerbitzuak antolatutako Euskal Prentsa buruzko ekitaldiaren barruan. Horrekin batera eta euskal prentsa bultzatzeko asmoz, euskal aldizkariaren erakusketan antolatu zuten aipatu bi taldeek. Erakusketan haurrentzako aldizkariak, herri aldizkariak eta informazio orokorra lantzen duten euskal komunikabide guzien bilduma ikusgai izan zen Euskadiko Kutxaren aretoan. Idatziriko euskal komunikabideak gertutik ezagutzeko parada ezin hobea suertatu zen.

Kanpainari hasiera emateko 'Euskal Aldizkariak Gaur' gaia zuten mahaingurua egin zen ostiralean. Bertan egungo euskal prentsan ditugun komunikabide eredu ordezkariek bildu ziren. Mahainguruan Patxi Larrion 'Larrun' aldizkari zuzendaria eta 'Argia' astekariko partaidea, Alberto Barandiaran EUSKALDUNON EGUNKARIAkoa eta Olatz Irizar Sakanako herri aldizkari kidea izan ziren euskal komunikabideen gaia jorratzeko. 'Argia' eta EUSKALDUNON EGUNKARIAren ezaugarri eta

izaerari buruzko azalpenak entzun ondoren, Sakanan proiektuan dagoen herri aldizkariaren xehetasunak ezagutzeko aukera izan zuten bertan bildutako lagunek.

Tokian tokiko informazioa lantzen duten herri aldizkariak duten arrakasta nabarmendu zuen Olatz Irizarrek. «Irakurleari hurbila egiten zaion hizkuntza eta informazioa eskaintzen zaionez, gogoz irakurtzen ditu herriko kontuak». Sakanako berriak euskaraz jasotzeko aukera oso murrizta dela kontuan izanik, Sakanerriko aldizkaria hutsune hori betetzera datorrela gaineratu zuen. «Sakanerriko informazioa lantzeaz gain, bertako euskalkiek islada izango dute». Horretaz gain, aldizkariaren bidez zonako kontzientzia piztea nahi dela gaineratu zuen.

Aldizkaria arina eta ulerterraza izango da, partaideen esanetan, eta erakargarria egin nahiak irudi eta argazki aunitz ekarriko ditu. Maiztasunari dagokionez hilabetean behin kaleratuko da. Halaber, Sakanako euskaldunek euskara mail ezberdina dutela kontuan harturik, euskalduntzen ari diren lagunek eta haurrek tarteberezia izanzen dute aldizkariaren eta harpidedun egin nahi duten guztiek aldizkaria dohain jaso ahal izanzen dute beren etxeetan.

Korella

Zaharren egoitza berria inauguratu zuten joan den ostiralean

IRUNEA

Joan den ostiralean inauguratu zen Hogar de San Jose zaharren egoitza berria, Juan Cruz Alli lehendakaria bertan zela. Arratsaldeko seietan hasi zen ekitaldi ofiziala, eta bertan Miguel Sanz lehendakariordea eta Korellako alkate ohia, Ricardo de Leon Gartzarte Ongizate, Etxebizitza eta Kirola kontseilaria, Matias Jimenez bertako alkatea eta beste agintari zenbait izan ziren.

Ostiralean zabaldu zen zaharren egoitzaren historia, baina ez zen orduan hasi, duela mende bat pasatxo baizik. 1879ko otsailean kokatu zen San Bizente Paulekoaren mojeen komunitate bat, San Juan ermita ondoan zegoen ospitale zaharreko gaixoak zaintzeko. 1894an, eta dirulaguntzei esker, ospitalea egungo eraikinean jarri zen, eta urte batzuk geroago Asiloa inauguratu zuten bertan. Urteik urtera berritzeko hainbat lan egin izan dira etxean eta 1960an San Joseren

Etxea bilakatu zen etxe zaharra.

Berriztapenak, ordea, ezinbestekoak ziren, eta 1993an hasi ziren lanak egoitza goitik behera aldatzeko. 250 milioi pezetako aurrekontuarekin, Nafarroako Gobernuaren eta Korellako udalaren arteko gomendio baten bidez ordainduak, egun, lanak bukatuta, hiru solairu dauzka eraikinak eta, orotara, 2.600 metro karratu. Beheko solairuan harrengela, logelak, sukaldea, jantokia eta erabilera anitzeko gelak daude. Lehen solairuan, logela, ileapaindegia eta osasun gela daude eta, bigarrenean, logelak eta hainbat gela.

Atxikiturik dauka egoitzak eliza, eta bertan 49 zaharrendako tokia dago. Bederatzi moja eta kontratatutako sei langile ari dira lanean egun. Azken berrikuntzei esker, tresneria eta sistema aurreratuak daude egoitzan eta ostatua, jatekoa, zainketa mediko-geriatrikoa, osaketa eta hainbat terapia eta asialdirako ekitaldiak eskaintzen dira.

Iruñea

Intsumisoen suak piztuko du Txantreako jaietako txupinazoa

IRUNEA

Gaur, ostirala, hasiko dira Txantreako jaiak, Iruñeko auzoen artean famatuenetakoak, famatuak ez badira ere. Arratsaldeko seietan hasiko da egitaraua, Felix enparantzan San Cristobal taldearekin egingo diren haurrentzako jolasekin. Ordu laurden bat geroago Eroskiko plazan, Nagore anai-arrebekin jota kantaldia izanen da, eta arratsaldeko zazpitan, Felix enpa-

zehir. Barraketan, 20.30etan, 'Jaiak bai amnistia ere bai' brindisa izango da, eta 21.00etan, Felix enparantzan, txistu eta gaita dantzaldia. Ondoren zezensuzkoa, eta 22.30etan Andra Mari Laguntzako kalean Eclipse taldearekin dantzaldia.

Bihar, larunbata, azpimarratzekoak dira goizeko hamaiketan izanen den erraldioen konpartsa, eta eguerdian egingo den Artzain-Txakurren Lehiaketa. Arratsaldean, 19.00etan, Eroskiko plazan, Duguna dantza taldearen emanaldia izanen da. Auzotegin, 21.30etan, AABek antolatutako Herri Afaria, eta 22.30etan dantzaldia Drindots taldearekin. Igandean, maiatzak 1, Bizikleta Lasterketa egingo da Eroski inguruan, eta 10.30etan Erraldioen Topaketa izanen da Armonia Txantreana Peñan. Kalderete txapelketa dago iragarrita 14.30etarako Irubide parkean, eta 18.30etan Herri Kirolak izango dira Ezkaba plazan. Auzotegin, 20.30etan, Street Blues taldearen emanaldia izango da eta 22.00etan zezensuzkoa aterako da, jaietako amaiera emateko. Gogoratu behar da hiru egunetan zehar Haurrendako Egutegia ere izanen dela.

Txantreako jaien barnean, arratsaldeko seietan hasiko da egitaraua, Felix enparantzan San Cristobal taldearekin egingo diren haurrentzako jolasekin.

rantzan, idazlan lehiaketaren sari banaketa. Orubete geroago, toki berean, txupinazoa botako da, aurtan intsumiso baten amak botako du, eta ondoren erraldioen konpartsa aterako da. Halaber, militarismoaren aurkako kalejira izanen da Xabier Olague kalean

Leitza

'Denok bil eta festa egin' lemapean, Katekesi Eguna bihar

P.U. / IRUNEA

Katekesi Eguna ospatuko da bihar, larunbata, herrian, Euskal Pastoralgintzak antolatuta. Urtero bezala, haur, guraso eta katekistak antolatzen den eguna, 'Denok bil eta festa egin' lemapean egingo da aurtan, eta goizeko 11etatik arratsalde bitartean izanen dira ekitaldiak.

Goizeko 11etan, horrela, ospakizuna egingo da herriko Migel Goiaingeru parrokiaren ondoren, 11.30etan, kalejira izanen da karraketan zehar, eta elizatik herriko plazaraino joanen dira partaideak musika tresnen doinuaz lagundurik. Hamabiak laurden gutxietan, ongi etorriak eta aurkezpenak egingen dira, herriko plazan. Hasteko, leitzarrek ongi etorria emanen diete joandako guztiei. Ondoren parrokiaren aur-

kezpenak, aurtan eskualdeko egingo direnak. Horretarako behar-beharrekoa jotzen dute antolatzaileek eskualdeko parrokiaren artean ados jartzea.

12.30etan jokoak izanen dira herriko plazan berean, eta aurtan Perurenaren partaidetza izango dute katekistek. Harrijasotzaileak ez ditu bihar, ordea, harriak altxatuko, haur jolasak antolatuko baizik. Izan ere, herrietako haur taldeen arteko lehiak izanen dira, berak zuzendurik.

Ordu bi terdian bazkaria izanen da eta, ohienez, bakoi-tzak berea eraman beharko du. Postreetan izozkiak banatuko dira partaideen artean. Hiruretan jaialdia iragarrita dago, eta haurrak izango dira protagonistak. Herrietako haurrek prestatutako ekitaldiak eskainiko dira: kantak, antzerkia, bertsoak eta abar.

Ezin dezaket ulertu

Urteek ez dute pisatzen; kiloek, berriz, bai. Hori dio ur marka ezagun baten iragarkiak. Halaber, iturriko ura ez da deus kostatzen; ur botilatxoak, berriz, bai. Azken hori, bistan denez, nik diot, eta ez iragarkiak. Gauzak horrela, kostata bada ere, norbait tabernaz taberna ura eskatzen ibiltzea uler dezaket, jatez jatez biomanan eskatzen ibiltzea bezalako bada ere. Saiatu arren, baina, ezinezkoa gertatzen zait txorrotako ura eskatu ordez ur botilatxoak eskatzea. Ezinezkoa gertatzen zait, alegia, gurean arrakasta itzela izaten ari den ohitura berri hori konprenitzea.

Iruñean daukagun txorrotako ura edukita, txorakeria galanta da. Iruñeko hodi ura, edozein sommelier-ek baieztatu dezakeenez, ur bikaina da, gorpuzduna, biribila, eta kolore onekoa gainera. Botilatxoak urak, berriz, ez dauka gortuzik, ez da biribila, eta ez da deus. Salbuespen bakarra aipa daiteke, Belaskoingo ura, hain zuzen; izan ere, kroketa ogitarteko batek adinako fundamentua dauka Belaskoingo ur botilatxo batek. Ur gatzduna da, lodia, eta zapore jasangaitzekoa.



Eta berriz diot, gauzak horrela, ezin dezaket ulertu makailua eta pilulen erresumatik ailegatutako ohitura hori —ur botilatxoak eskatzeko, alegia—. Demasa da. Poteoa Filipinetako luxu bilakatu den honetan dohainik lor dezakezunagatik ordaintzea, gehiegi! Tumatxa! Egun taberna batean erronda eskatu aurretik konpromezurik gabeko aurrekontua eskatu behar duzu; izan ere, batek daki erronda arrunt bat ordaindu ahal izateko ez ote duzun banku bati mailegua eskatu behar izanen. Edonon 200 pezeta lapurtzen dizkizute kalimotxo baten truke, kasko Coca-cola ardoarekin nahastea konbinatu bat egitea bailitza. Eta kafia bat eskatzen baduzu, 150 pezeta kentzen dizkizute, San Miguel garagardo petrala Prahatik zuzenean ekarritakoa izango bailitz bezala. Eta berriz diot, gauzak horrela, ezin dezaket ulertu. Zapaltzen gaituzte, dirua lapurtzen digute, eta jendeak ura botilatxoan eskatzen du.



XAKEAN



Nafarroako Banakako Xake Txapelketako 8. ihardunaldiko partida. 1994ko Martxoaren 12an jokatua.

Pedro Viñal (2.250 ELOkoa, 3. rankingean)—J. Javier Cortes (2.265 ELOkoa, 2. rankingean).
1.d4, c5; 2.e3, Zf6; 3.c3, e6; 4.Ad3, b6; 5.De2, Ab7; 6.f4, Ze4; 7.Zf3, Ae7; 8.0-0, f5. Txurien balizko erasoari hegoak mozteko. Erregeak 'bilatzen' ariko direla ematen du. Borrokarako eskentokia, prest. 9.bZ-d2,0-0; 10.Ze5. Goizegi emandako pausoa: Denbora galtzea eragingo du. 10...d6; 11.eZ-f3, Zd7; 12.Ac4, d5; 13.Ad3, Eh8; 14.Ze5, Ze5; 15.f-e5, g5; 16.Ze4, f-e4; 17.Aa6, Gf1 xa; 18.Df1, Aa6; 19.Da6, Dd7; 20.Ad2, Gf8; 21.De2. Alfilaren zutabe hori beltzen esku utzea ez da ona. 'Gf1' lehenbailehen jokatuko beharrekoa da. 21...Eg7; 22.b3, De8; 23.c4, Dg6; 24.d5, d5; 25.c5, c5; 26.Ac3, g4; 27.Gf1. Beranduegi. Ikus Koadroa. Beltzek badaukate partida bere alde jartzeko jokaldi erabakigarria. 27...Gf3. Izugarri-ona. Ezin da: '28.Gf3, f3; 29.Db2, Ag5; 30.Ad2, g2; 31.Eg2, Ae3 xa'. Eta are gutxiago: '28.f3, f3 xa'. 28.Db5, d4; 29.d4. 'Ae1' jokaldiak ez zuen ezer konponetzen: peoia galdu, eta sarrera zabal-zabalik. 29...Gc3; 30.Dd7, Dg5; 31.d5, Gc1; 32.Gc1, Dc1 xa; 33.Ef2, Db2 xa; 34.Ee3, De5; 35.Dg4 xa, Dg5 xa. Txuriek luza zezaketen partida: '36.Dg5, Ag5 xa; 37.Ee4'. Baina nahiago izan zuten amore eman. Defentsa ez sendotzearen ondorioa ordaindu zuten.

Hitz debekatua

Asteazken arratsaldea da eta nere gurasoak hirira doaz erosketak egitera. Oso aspertuta nago eta ez daukat irakurtzeko, marrazteko ez eta telebista ikusteko gogorik.

Zer egingo dudan pentsatzen egon ondoren gauza bat bururatu zait: telefonotik txantxetan aritzea. Orduan edozein zenbaki zanpatu dut: 567 43 11. Seinalea entzun nuen eta ondoren:

—'Dena dohainik konpainia': zertan serbi zaitzaket?

Eta txantxetan nenbilerarik zera erantzun nuen:

—Egunon! Arratoi jaunarekin jarri al nazakezu?

Eta ahotsak:

—Hemen ez du Arratoi jauna delakoak lan egiten. Baina nahi baduzu bazkide egingo zaitut.

—Ni, bazkide?

—Bai, zure izena besterik ez duzu esan behar eta gero nahi duzun guztia eskatuko duzu, dirua ezik, noski.

—Beno, Jokin Beltza naiz. Lehenengo eskaria egin dezaket?

—Bai, baina egin behar dituzun eskari guztiak ez dira -ORE edo -UAn bukatu behar.

—Ongi da! Ba, lehenengo eskaria kamioi bat da.

Hori esan orduko ke urdin bat hasi zen telefonotik ir-teten eta gero kamioaren forma hartu zuen.

Hurrengo egunean berri-ro 'Dena dohainik konpainiara' deitu nuen eta berriro ahots hura agertu zen.


—Bai, esan? 'Dena dohainik konpainia'. Zertan serbi zaitzaket?

—Kaixo. Jokin Beltza naiz.

—Kaixo, Beltza Jauna. Atzo gauza bat esatea ahaztu zitzaidan. Esandako bi hitz bukaera horiek erabili ezker Langor planetara eramango zaitugu betirako lanera edo bestela eskari guztiak itzuli beharko dituzu. Beno eta orain gurera. Nahi al duzu traktore bat?


—Hori zen... behar ez nuen gauza. Nik hegazkin bat nahi dut.

—Ongi da. —esan zuen ahotsak haserre samar. Eta beste egunean bezala etorri zen eskaria. Egutero segitzen zuen gertakizun miragarri honek. Beti sartu nahi zidaten ziria hitz bukaeradun jostailuak eskainiz, baina ni kontu handiarekin ibiltzen nintzen.



Iraitz Goñi

(ARBIZU)



Egun batez besteetan bezala deitu nuen eta erloju bat eskatu nuen, A ze haserre hartu nuen nolako erloju bat zen ikustean! Orratzak beharrez, botoi handi bat zuen leku guztia hartzen zuelarik. Berriro deitu nuen eta botoiari eskubi alderantz biratzeko esan zidan baina hortik ez zen ateratzen nik nahi nuena. Hirugarren aldiz deitu nuen eta esan nuen:

—Baina zer erloju klase da hau! Nik ordua markatzen duen erloju bat nahi dut! —Orduan ohartu nintzen egin nuen erruaz.

—Ordua esan duzula iruditu zait. Itxaron pixka bat. —Orduan betiko ke urdina agertu zen, baina ez zen jostailurik agertu, gizon bat baizik. Orduan gizonak esan zuen:

—Huts galanta egin duzu 'ordua' hitza esatean. Orain nerekin etorriko zara Langor bizi guztirako lan egitera. —Malkoak isurtzen hasi zitzaizkidalda konturatu nintzen.

Baina orduan gauza batetaz oroitu nintzen: gauza guztiak itzulita ez nintzela planeta lakagarrira joango, eta esan nion:

—Ez naiz joango. Zeren oraindik gauzak itzultzeko aukera dut.

Gizonak haserre aurpegiz begiratu zidan eta esan zuen:

—Ongi da, bihar arratsaldeko bostetan hartuko digutu. Guztira 18 eskari dira. Hemezortziak ez badaude, badakizu zer datorkizun.

Denak bilatu eta bata bestearen atzean jarri nituen, baina bat falta zen! Berriro ere kontatu nituen baina bat falta zen. Bostak ziren eta

orduantxe hasi zen telefonoa hotsez. Hartu eta gauzak hartzen joan zen etorri ziren bezala. Nere anaia deika hasi zitzaidan eta berehala joan nintzen beregana eta galdetu zidan:

—Ba al daukazu pluma honentzat tintarik? Zure gelan aurkitu nuen eta horregatik galdetu dizut.

Eskuetatik kendu eta telefonora abiatu nintzen, orduan hasi zen azken jostailua ke bihurtzen eta han jarri nuen pluma. Horrela libratu nuen nere burua Langor planetatik. Eta badakizue, norbaitek 'Dena dohain konpainia. Zertan sergi zaitzaket' entzuten baduzue lehenbailehen eskegi, ez baduzue nahi niri gertatu zaidana gertatzea.

Bikingoak

Hona hemen 'Orhipean' izeneko liburuan Xamarrek dioena: 'Europa osoan beldur handia sortarazi zuten herrien artean normandoak (iparreko gizonak) ditugu, bikingoak ere deituak. Ikaragarriko gudariak omen ziren eta itsasgizon paregabeak. IX. mendean gure lurretara ere ailegatu ziren, Baiona konkistatu 844 eta 892 urteetan, bai eta sortu berria zen Nafarroako erresuma oldartuz ere. Azken honetan, Iruñean nafar errege zen Gartzia I. preso hartu zuten 858-859 urteetan. Herriak garai-ko 70.000 diru ordaindu zien normandoei erregea aske utz zezaten'.

Haien sagetan eta inskrip-

zioetan konkistatutakoaren berri zehatza utzi zuten. Vikings-ek Iruñeaz eta Baionaz gain, hiri aunitz eskuratu zituzten. Bataz beste, Londres, Paris, Bordele, Sevilla, Irlanda, Normandia, Vinland (Amerika), Jorvik (Jork), Biarmaland (Argel), Uralak, Nörvesund (Gibraltar), Sarkland (Sarrazenoen herria), Blaaland (Herri Urdina, Afrika), Saxland (Sajonia), Helluland (Herri zabaleko herria, Labrador), Markland (Herri basotsua, Tornua), Miklagard (Hiri Haundia, Constantinopla). Errusiako erresuma bera ere haiek fundatu zuten. Baina Iruñea eta Baiona ez zituzten aipatu haien zerrandetan.

JUANTXO URDIROZ



Ez usteak zure atean joka

Borgesek esana da euskaldunok behiak deitzi baino ez dugula ezer egin mundu honetan.

Borgesek euskaldunak gutxietsi egiten zituen tamainan, bikingoak miretsi egiten zituen. Borgesek esana da euskaldunok behiak deitzi baino ez dugula ezer egin mundu honetan. Vikings-ekin, berriz, kexatu agertzen da. Nahiz eta Amerika aurkitu eta garaiko herriak ixutu, nahiz eta lehendabiziz literaturan errealismoa ibili sagetan, inork ez ditu bikingoak aintzakotzat jotzen. Ez zuten anbizio politikorik izan, hiriak eskuratu, zakuratu, erre eta ospa egiten zuten. Hala ez da Historian sartzen. Errealismoa lehendabiziz haiek ibili zuten literaturan. Saga batek esate baterako kontatzen digu nola Thorbjörn-ek Atli akabatu zuen.

Hau da bukaera. 'Thorbjörnek

bi eskuz azkona Atliren bularean sartu zuen. Kolpea jasotzean, Atlik esan zuen: Orain bai azkon zabalak erabiltzen direla. Ahoz behera erori zen. Emakumeak ageri eta hilik ediren zuten. Thorbjörn-ek, bere zalditik, hiltzailea bera zela oihukatu zuen eta etxeratu zen'. Idazkera errealista izaki ere, beleari zisne beltza edota odoltsua deitzen zioten, gorpuari, zisne odoltsuaren artoa, odolari ezpataren ura edota hildakoaren ihintzia eta ezkuari pirataren ilargia. Hala ere, Nafarroako erresuma leku berbera ailegatu da, meritu gutxiago egin arren. Oroitezera. Informazio iturriak Xamarren 'Orhipean' eta J. Borgesen 'Destino Escandinavo' eta 'El Dios y el Rey' artikulua.

Baigorriko Kultur Astean, Aldudeko Herriko Etxean ehiztari eta arrantzaleen ordezkariak abere eta ingurugiroaren gerizatzeaz dituzten grinak agertu dira, naturaren ardura guztiona delarik. Arrain edo ehizien iraupena nahi bada aukera baitezpadakoen garaia dela gaur azpimarratu zuten.

Ehiztari eta arrantzaleen ardurak

L. ETXEHARRETA / ALDUDE

Mahainguru aberatsa gertatu zen asteazken arratsean, Aldudeko Herriko Etxean, ehiztari edo arrantzale elkarten artean, biologista eta publikoaren artean egin zen solasean. Ingurugiroaz guztiek duten kezka argi geratu zen. Gizarte aldakuntzek beste ehizi eta arrantza bat sortu dutela nabaritu da: horretan abereen hil biziak zalantza dira. Etorkizunari begira ez dela hargatik etsitezkerik agertu dute, honen baldintza hargatik elkarlana izan beharko dela agertu da. Elkar go-goeta eta erabakitze hori ez dela soilik ehiztari edo arrantzaleena izan beharko atera da solasetarik: bakoitzak ez du egoeraren giltza bat baizik, gizarte osoaren arazo da, hots arazo 'politikoa'.

Mahainguruan informazio ugari banatu zen. Lehen zati batean Baigorriko bailarako egoera zehaztu zen. Ondoren, Europako legedi berriaz labur hitzegin zen eta azkenik, proposamenez aritu ziren, 'egoeraren kudeantzarako tresnak' aipatuz.

BAIGORRIKO ONDARE ABERATSA

'Natur ondareaz' hitzegin zen lehendabizi, Baigorriko bailarako abere ondare aberatsaz mintzatuz. Pello Aldaburu, Ipar Euskal Herriko arrantza eta ehizi begirale eta Nature Berri elkarteetako kideak, ondareari begira 'gauzak beren osotasunean agertu behar zirela azpimarratu zuen, 'sare hidrografiko' osoari begiratuz. 'Errobi' ezberdinak, erdaraz 'Nive' deitzen direnak adarrekin dira Baigorri, Arnegi, Ezterenzubín. Arrain ondare garrantzitsua dela agertu zuen, batez ere izokin eta amuarrainei begira. Itsasoan migrazioak egiten dituzten aingirak ere aurkitzen dira.

Arrantza federakuntzak urtero kontakteten egitera saiatzen dira. Baigorriko Errobiari begira «ezberdintasun nabariak» badirela agertu zuen. Goiko partea amuarrainez aberatsago delarik. Arraien ernalketa azaroan egiten delakotz, arrautzak ureko harrien azpian jarri ondoren «uraren kalitateak arrain kopurua asko baldintzatzen duela» ziurtatu zuen.

Bi arraintzarako elkarte dira Errobi inguruan: 'APP Nive', zaharrena eta APRN. 'Errobi Bazterreko Arrantzaleen Elkarte'. Honek 2.790 arrantzarako baimen banatu zituen 1993an. Baimen bakoitzak 350 libera (8.250 pta) baljo du eta hilero 105 libera pagatu behar da (2.600 pta). 'Turistei' bi asterako 120 libera pagazten zaie (3.000 pta). Zedarrí, APRNeko zuzendariak «gaur arrantzale askoz gehiago» badela erakutsi zuen eta 1940.eko ha-



Bizkaiko arrantzuntziak

XOUSE SIMAL

markadan izokin asko bazirela. Zionaz soldado alemanek tiroka hiltzen zituzten.

APPren zuzendariak, Mendiburu medikuak izokinaren «hartze gehiegizkoak» Aturri ibaian aipatu zituen. 10.000 helduak badirelarik, Aturri goiti joaten ari, sareetan 7.000 hartzen dituzte. Ernalketarako 3.000 baizik ez dira gelditzen eta hauetarik 300 heltzen dira Errobi goi aldera.

«Hau ez da aski multzoa naturalki biziartzeko». Azpimarratu zuenaz, «nahi baldin bada izokin ugari Errobin, Aturriko harketak gutitu beharko dira baitezpada». Bestalde «arrain zurubiak» premiazkoak direla baraderen gaintzeko agertu zuen.

TOKIKO ABEREEN PREMIA

Panpi Luro, Baigorriko bailarako ehiztarien elkartearen

buruzagiak, ehiztari 8.530 hektara publikoetan eta 5.641 pribatuetan, ezagupen nahiko mugatua dela abereen kopuru zehatzaren jakintza agertu zuen. Érbia «oso ziklikoa» dela eta lapina eskasa agertu zuen, batez ere mixomatosiagatik. Orkatzak azken 15 urte hauetan guztiz gehitu badira, hor «Nafarroan aurrera eramandako erreserbaren eragina zela» zioen.

Boucheron, Kanboko ehiztarien zuzendariak azpimarratu zuen ez zela soilik gaixotasunen arazoa ehiztari dagokionez baina «ez zela aski kontu ematen tokiko arrazaren begiratzeari». Azpimarratu zuenaz «kanpotik etorritako abereak adaptazio arazo larriak dituzte».

Migrazioak egiten dituzten hegaztiak, batez ere urtoa aipatu zen ere. Honen ehiztaren mugatzeko xedeek jende asko eta asko asaldatzen du bailaran. Horretaz agertu zuen Iker Elozegi biologista kopurua gutitzen ari dela eta «abere horrek irautea nahi bada, benetan premiazkoa izango dela hartzeen mugatzea». Batzuek agertu dutenez «hartzeak, kopuru osoari begira benetan oso-oso guti» direla, «milatik bi baizik ez direlakotz hartzen» agertu zuten.

Pantxo Zedarrík moderatu mahaingurua bururatu zen zuzurtzari buruzko aipamen askorekin. Bakoitzaren erantzukizunaz, kontrol beharrezkoek, «ingurugiroari buruzko egiazko politika batez» hitzegin zen. «Ehizia eta arrantzaren etorkizuna, ehiztariendako toki babestu batzuen erakitze eta errespetatzek» baldintzatzen duela azpi-

Europako aginduez zalantzak

L.E. / ALDUDE

■ Europako legedi berriez ehiztari edo arrantzaleek kezka agertzen dituzte. Boucheronen «migrazioetan dabilzan abereei buruz» mugatzeak gerta daitezkeela agertu du, erranez «normala dela seriooki egin denaz gero»: «arrazaren iraupena baldintzatzen dutenez gero, onartu behar dira, ezin baita gehiago hartu kontatu gabe, garai batean egin zen antzera».

Pello Aldaburuk zioenaz Eu-

ropako agindu zenbait gaizki eginak dira. Hala nola belexega, uzkinazo edo pikei buruz, 'kor-bideok' erregulatzea debekatzeko zaie Europako estatuei. Hauek «ez direla gal-arriskuan» azpimarratu zuen eta horrela «dekretu zentzugabekoa» zela.

Ehiztari edo arrantzale elkarten ordezkariak Departamendu edo Estatu mailako aginduak errespetatzen dituztela agertu zuten, gainera «hauen esparruan egoten direla» azpimarratuz. Horrela ehizi garai ofizialaren

barruan elkarte batek denboraren murriztea, tokiko arazoaren araberaren erabaki lezake.

Iker Elozegi legedia ez dela «teknokratena soilik» baina ere «politikoa» agertu zuen. Bere ustez arazo nagusia da «nola aplikatzen diren legediak». Azken batean «norberaren ibilera» dela premiazkoena aipatu zen. Agertu zen ere «denen ardura denaz gero, denek, eta ez soilik ehiztari edo arrantzaleek, erabakien errespetatzea finantzatu behar luketela».

«Ez naiz hobea 13 urte izateagatik»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Ikastola eta dantza ikastaroaren artean harrapatu dugu etxean, arrunt lanpeturik baitabil mutikoa. Arreba eta aita —pauso guztiak zuzendu eta begiratzen dituen aita— ondoan dituela, galderei erantzun die. Harrokeriarik gabeko heldutasuna darie.

EGUNKARIA.— Kontzertuetan beti bakarrik aritzen zara, baina grabazioa hainbat lagunekin egin duzu. Nola moldatu zara?

BITTOR AIEPPE.— Ondo, grabatu ditut orain arte beti abestu izan ditudan kantak, baina grabazio etxekoek deitu zuten zenbait musikari, laguntzera etortzeko. Orduan etori ziren Bizkar Hezurra taldeko baxu jolea eta Minxoriak taldeko gitarra jolea. Bateria egiteko programak sartu zituzten ordenadorearekin eta nik gitarra eta ahotsa sartu nituen.

EGUNKARIA.— Eta zer moduzkoa iruditu zaizu esperientzia?

AIEPPE.— Oso polita. Kontzertuetan badago jendea, eta giroa beroagoa da. Baina ezin duzu errepikatu kanta bat: ateratzen zaizu eta kitto. Honekin oso ondo ateratzen dira. Soinua oso landua da, kontzertuan ez dirrelako nahi duzun bezala ateratzen.

EGUNKARIA.— Nahiago duzu diskoa grabatu kontzertua eman baino?

AIEPPE.— Nik nahiago ditut kontzertuak, diskoa, azken finean, plastikoa delako. Kontzertuetan jendearekin zaude, baina diskoa beharrezkoa da. Bestela... Kontzertuetan, ordea, indar handiagoa dute kanteak.

EGUNKARIA.— 13 urte eta disko bat grabatuta. Martxa ona daramazu... Zer esaten dizu klaseko jendeak?

AIEPPE.— Jendeak esaten dit fenomenoak naizela: 'Fermin Muguruza bezalakoa zara!' esaten didate, baina nik 13 urte izateagatik ez dut zergatik hobea izan. Izan daiteke oso musikari ona 26 urterekin, edo 13 urterekin. Ez dut 13 urterekin disko bat grabatu duen inor

ezagutzen, baina...

EGUNKARIA.— Eta ez dizu beldur pixka bat ematen?

AIEPPE.— Ez, ez bereziki.

EGUNKARIA.— Egin dituzu dagoeneko kontzertu erraldoiak, jende askoren aurrean. Bertan ondo abesten duzu, la-sai?

AIEPPE.— Urduriago jartzen naiz bi pertsonaren aurrean. Jende gutxi baldin bada, urduriago. Lagun asko baldin badira, hasten bazara animatua, denek jarraitzen dute. Jende gutxirekin, ordea...

EGUNKARIA.— Gabriel Arestiren 'Nere aitaren etxea' poesiarekin egin duzu abesti bat. Nola bururatu zitzaizun?

AIEPPE.— Liburuak beti irakurri izan ditut —lehen orain baino askoz ere gehiago—, eta behin aldizkari batean Euskal Herriko poesiak irakurri nituen, eta horien artean hau. Gustatu zitzaidan, eta musika jarri nion.

EGUNKARIA.— Hala ere, letra

gehienak zureak dira.

AIEPPE.— Bai, baina batzuetan pentsatu dut bertso edo poesia bati musika ipintzea. Hala ere, ez dut inoiz egin, bakarrik poesia honekin.

EGUNKARIA.— Ikastolatik etxera, eta gero dantzara, hamarrak arte. Ez al zabilta lanpetuegia, baduzu denbora entseiatzeko?

AIEPPE.— Aste Santuetan, aste bukaeretan edo horrelakoetan entseiatzen dut. Baita herrira, Kasedara, joaten naizenean ere. Han dauzkate tresna guztiak. Hemen etxean soilik gi-

tarra daukat.

EGUNKARIA.— Eta etxera inoiz etorri zaizkizu kexuka bizilagunak?

AIEPPE.— Bai, batzuetan jotzen dute makilarekin zoruan. Baina entseiatu, ia dena Kasedan egiten dut.

EGUNKARIA.— Gustatuko litzazuke gehiago entseiatzea, edo nahikoa da?

AIEPPE.— Nahikoa ez da inoiz. Bakarrik bi egun ere... Hala ere, dena lantzeko, organoarekin egiten dut, eta soinu tresna guztiak programatzen ditut. Nik egiten dut dena, eta kontzertuetara programatuta eramaten dut.

EGUNKARIA.— Beti zuk bakarrik jotzen duzu. Zergatik?

AIEPPE.— Ez dut talderik eta. Badut jende ezaguna jotzeko, baina orain dauzkadan lagunak beste herrietakoak dira, eta esaten badiet toki batera joateko, esaten didate ezin dutela. Organoarekin dena egin ahal dut, baina baditu bere eragozpenak: makina bat dela! Gustatuko litzaidake lagunekin askoz gehiago jotzea, baina oraindik hain gazteak izanik, ez da posible.

EGUNKARIA.— Pentsatu duzu zer egingo duzun 20 urterekin, adibidez?

AIEPPE.— Bai, pentsatu dut, baina ez dut ikusten neure burua 20 urterekin eta famarekin. Ezta 13 urterekin eta famarekin ere. Bakarrik ikusten dut neure burua jotzen, hori gustatzen zaidalako. Jakina, ateratzen baduzu diskoa, eta Negu Gorriak-en parera ailegatzeko bazara, askoz hobeto.

EGUNKARIA.— Hainbeste gustatzen zaizu Negu Gorriak taldea?

AIEPPE.— Negu Gorriak baino gehiago, Ferminek egiten duen lana. Bera hasi zen Kortaturekin 16 urterekin, gazte-gaztea zela. Oso lan handia egin du. Kortatu bost urtez egon zen, eta Euskal Herriko talderik onenetakoa zen.

EGUNKARIA.— Non dituzu zaletu gehienak? Ikastolan, Kasedan...?

AIEPPE.— Ez, Kasedan ez. Ezagutzen naute, baina zaletu asko... mugan dago eta.

«Gustatuko litzaidake lagunekin jotzea, baina hain gazteak izanik, oraindik ez da posible».



Bittor Aieppe

ABESLARIA



SOSLAIA

Diskorik gazteena

Bere lehen diskoa grabatu berri du Bittor Aieppe kantari gazteak. IZ disketxearen eskutik, sei egun eman ditu hamalau abesti plastikoa betiketzen, musikari zenbaiten laguntzaz. Marka ederra 13 urteko mutikoarendako, baina berak aparteko garrantzirik ez diola ematen dio: «Nik kantatu nahi dut, hori da gehien inporta zaidana». Oraindik ez du talderik, lagunak «gazteegiak» direlako, eta kontzertu franko emanik ere, ez dio artean laudorioen aparrak burua nahastu. «13 urte izateagatik ez dut zergatik hobea izan behar». Negu Gorriak-en eta Fermin Muguruzaren mireslea, kantari harriarri baten aurrean gara, dudarik ez egin.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

